



HAL
open science

Euskara batua eta euskalkiak Ipar Euskal Herrian: Pertzepziozko dialektologian oinarritua den inkestaren bigarren zatia

Jean-Baptiste Coyos

► **To cite this version:**

Jean-Baptiste Coyos. Euskara batua eta euskalkiak Ipar Euskal Herrian: Pertzepziozko dialektologian oinarritua den inkestaren bigarren zatia. Euskera. Euskaltzandia'ren lan eta agiriak. Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca. Travaux et actes de l'Academie de la Langue Basque, 2019, Euskera, 2019, 64, 2-1, 64 (2-1), pp.255-290. artxibo-02987786

HAL Id: artxibo-02987786

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-02987786v1>

Submitted on 4 Nov 2020

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Euskara batua eta euskalkiak Ipar Euskal Herrian: Pertzepziozko dialektologian oinarritua den inkestaren bigarren zatia

Euskera unificado y los dialectos del País Vasco Norte: segunda parte de un estudio basado en la dialectología perceptiva

Le basque unifié et les dialectes en Pays Basque Nord : deuxième partie de l'enquête basée sur la dialectologie perceptuelle

Standard Basque and dialects in the Northern Basque Country: the second part of the survey based on perceptual dialectology

COYOS ETXEBARNE, Jean-Baptiste
Euskara eskuz esku (EEE) egitasmoa
Euskaltzaindia

Noiz jaso: 2020-01-16

Noiz onartua: 2020-03-09

Artikulu honetan, Euskaltzaindiaren *Euskara eskuz esku* egitasmoan eraman den inkesta soziolinguistiko bateko galdera irekien erantzunak aurkezten eta aztertzen ditugu. Galdera itxiei erantzunen emaitzak eta analisia jadanik argitaratuak dira (*Euskera*, 2018, 63, 2-1, 185-208). Hona bigarren erantzun multzo horren emaitza nagusi batzuk: inkestatuen arabera, Ipar Euskal Herrian euskara batua ez da ongi ezagutua, euskalkiekin nahasten da eta euskaraz eskolatuak ez diren euskaldunentzat zalantzakoa da. Baina lehen arazoa lurralde horretan osoki nagusitzen den frantsesa da. Euskaran berean ere eragina du. Geroan, guti transmitituak izanez, euskalkiak ahulduko direla eta euskara batua indartuko dela da inkestatuengan aurreikuspen hedatuena.

Era batez edo bestez euskararen preskribatzaileak diren berrogei lekukoren erantzunei esker, euskara batuaren, euskalkien eta frantsesaren egoera eta haien arteko harremanak Ipar Euskal Herrian hobeki ulertzen ditugu, hizkuntza-ekosistema hori konplexua eta aldatkorra dela kontuan hartuz.

Gako-hitzak: euskara batua, euskalkiak, Ipar Euskal Herria, pertzepziozko dialektologia, inkesta, galdera irekiak.

En este artículo presentamos y analizamos las respuestas dadas a las preguntas abiertas que se insertaban en la encuesta sociológica que se desarrolló como parte del proyecto de la Real Academia de la Lengua Vasca “Euskara eskuz esku” (‘Euskera de mano en mano’). Los resultados y análisis desarrollados en base a las preguntas cerradas del cuestionario han sido ya publicados (*Euskera*, 2018, 63, 2-1, 185-208). Pero lo que ahora nos atañe, estas serían las principales conclusiones de este segundo estudio: Analizando las respuestas vemos que el euskera unificado no es muy conocido en el País Vasco Norte, esta mezclado con los dialectos, y los no vasco parlantes dudan de su validez. El principal problema es el absoluto dominio del francés en este territorio. La predicción mas compartida entre los que han respondido al cuestionario es que los dialectos se van debilitando, baja su transmisión y como resultado de ello el euskera unificado se fortalece.

Las personas que han respondido a las preguntas poseen cierto prestigio en el ámbito del euskera y es por ello que sus opiniones son muy válidas para conocer la situación del euskera, de los dialectos vascos, del francés y de las interconexiones entre dicha lenguas en el País Vasco Norte. Aún así hay que tener en cuenta que el ecosistema lingüístico es complejo y cambiante en cada territorio.

Palabras clave: Euskera unificado, dialectos, País Vasco Norte, dialectología perceptiva, encuesta, preguntas abiertas.

Dans cet article sont présentées et analysées les réponses aux questions ouvertes d’une enquête sociolinguistique menée dans le cadre du projet “Euskara eskuz esku” (Le basque de main en main) de l’Académie de la langue basque. Les résultats et l’analyse des réponses aux

questions fermées ont déjà été publiées (*Euskera*, 2018, 63, 2-1, 185-208). Voici quelques-uns des principaux résultats de ce deuxième groupe de réponses : selon les enquêtés, le basque unifié n'est pas bien connu en Pays Basque Nord, il est mélangé aux dialectes et il pose des difficultés aux bascophones qui n'ont pas été scolarisés en basque. Mais le principal problème, c'est le français, langue ultra-dominante sur ce territoire. Il influe sur la langue basque elle-même. La prévision la plus répandue parmi les enquêtés est qu'à l'avenir, parce qu'ils sont peu transmis, les dialectes vont s'affaiblir et le basque unifié se renforcer.

Grâce aux réponses de ces quarante témoins tous prescripteurs de la langue basque d'une manière ou d'une autre, nous comprenons mieux la situation et les relations entre le basque unifié, les dialectes et le français en Pays Basque Nord, prenant en compte le fait qu'il s'agit d'un écosystème linguistique complexe et changeant.

Mots-clés : basque unifié, dialectes, Pays Basque Nord, dialectologie perceptuelle, enquête, questions ouvertes.

In this article, we present and analyse answers to the open-ended questions from a socio-linguistic survey carried out as part of Royal Academy of the Basque Language's "Euskara eskuz esku" ("Basque from Hand to Hand") project. The results and analysis of the answers to open-ended questions have already been published (*Euskera*, 2018, 63, 2-1, 185-208). These are some of the main results of this second set of answers: according to the respondents, standard Basque in the Northern Basque Country is not well known; it is mixed with dialects; non-Basque speakers doubt its validity. But the first problem is the general dominance of the French language in that territory. This affects the Basque language itself. The most widespread prediction among the respondents is that as dialects are not passed on in general they will be weakened, and standard Basque will be strengthened as a result of that.

Answers from forty respondents (who, in one way or another, have authority to speak about Basque) give us a better understanding of the situation of Basque, Basque dialects, French and the connections between them in the Northern Basque Country. It has been taken into account that the linguistic ecosystem is complex and ever-changing in the territory.

Keywords: Unified Basque, dialects, Northern Basque Country, perceptual dialectology, survey, open-ended questions.

1. Inkesta: helburu orokorrak, datuen biltze moduak eta lehen emaitzak

Artikulu honetan, *Euskara eskuz esku* (EEE) egitasmoaren baitan eraman izan den inkestaren bigarren emaitza multzoa aurkezten da¹. Berrogei leku-kok hamahiru galderako inkestari erantzun diote 2018ko lehen sei hilabete-koan, edo fitxa batean idatziz edo grabatu den elkarrizketa batean.

1.1. Inkestaren helburu orokorrak eta pertzepziozko dialektologia

Inkesta horren helburuak, besteak beste, Ipar Euskal Herrian euskara batua eta euskalkiak nola harremanetan diren aztertzea zen, euskara batua nola onartua zen ikertzea, euskalkien estatutua zein zen, haiei atxikimendua ebaluatzea, batuak eta euskalkiek zer geroa zuten inkestatuen ustez... Beste molde batez erranik, euskararen hizkuntza-ekosistema nola agertzen zaien inkestatuei lurralde horretan, hirugarren partaide bat gutxienez badela jakinez, hizkuntza nagusia den frantsesa. Zazpi galdera itxien erantzunei buruzko lehen emaitza multzoa argitaratu da (laburpena 1.3. lerroaldean ikus)².

Gai horiek aztertzeko eta inkesta sortzeko, pertzepziozko dialektologiaren printzipioetan bermatu da. Pertzepziozko dialektologiak hizkuntzalari ez direnek bariazio dialektala (beren hizkera, lurralde auzoena edo urrunagokoe-

¹ *Euskara eskuz esku* proiektuak Ipar Euskal Herriko hitzunei hizkuntza-aniztasuna kontuan hartzen duen euskara batuaren hedatzeko tresna linguistiko berria ematea du helburu. Egunero gaurkotua izan den euskarri numerizatu erabilgarria sortuz, xedea euskaldunen galderei erantzutea da webgunearen testuen bidez edota, posta elektronikoz, erantzun zuzen baten bidez. Euskaltzaindiak ematen dituen gomendioak eta arauak proposatuko ditu, hizkuntza-alorren arabera sailkatuak, Ipar Euskal Herriko hizkuntza-aniztasunari dagozkionak azpimarratuz. *Euskara eskuz esku* egitasmoa 2018-2020 epean Europako Lurralde Garapen Funtzak % 65ez lagundua da (FEDER), Interreg V-A programaren barnean (Espainia-Frantzia-Andorra, POCTEFA 2014-2020). POC-TEFAren helburua mugaz gaindiko Espainia-Frantzia-Andorra lurraldearen ekonomia- eta gizarte-integrazioa indartzea da.

² Bi argitalpen izan ziren: Coyos, 2018, euskaraz, eta Coyos, 2019, ingelesez. Bigarren artikulua euskara eta Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa ezagutzen ez dituztenentzat egina da.

na) eta haren estatutua (zuzentasuna, goxotasuna, prestigioa...) nola ulertzen, hobeki erran, sentitzen dituzten aztertzen ditu. Hizkuntza-gertaerak ikertu baino, pertzepziozko dialektologiak hiztunen hizkuntza-kontzientzia ikertzen du. Hiztun baten hizkuntza-sinesmenak, sentimenduek eta jarrerek bere hizkuntza-ariketa eragiten dutela suposatzen du (Cramer, 2016). Hizkuntza-sinesmen, sentimendu eta jarrera horiek interes zientifiko handikoak dira hizkuntza bat, hizkuntza-komunitate bat edo harremanetan diren hizkuntzak zertan diren ebaluatzeko, ulertzeko (Paveau, 2008).

Inkesta sortu baino lehen, erabili behar genituen kontzeptuak argi izan behar ziren. Baina ez zen hola. “Euskalki” nozioa aski argi baldin bazitzaigun, XIX. mendetik azertua baita, “euskara batua” erramoldea, aldiz, “euskalki” hitza bezalakoa ez zen. Eta ez bakarrik euskara mota hori aski berria baitzen. Ez, hizkuntza arautuak denak bezala, euskara batua hizkuntza-fenomeno konplexua da, anitza eta aldakorra. Batua ez da batere monolitikoa (Coyos, 2018). Datu zehatza baino, aurpegi anitzeko datu enpirikoa da. Hori ere inkestaren bidez ulertu nahi genuen, hobeki ulertu bederen, Ipar Euskal Herriko hizkuntza-testuinguruan.

1.2. Datuen biltze moduak

Inkesta bi moldez eginarazi zaie lekukoei. Alde batetik, dokumentu batean inkestatuak galdetegia bete du eta posta elektronikoz erantzunak itzuli ditu. Erantzunen luzera libre zen. Galderaren arabera, batzuek lerro batez erantzun dute, baina beste batzuek orrialde erdi bat baino gehiago bete dute. Bestetik, buruz buruko elkarrizketa egin da hamaika inkestatu-ekin, hamahiru galderak eginez. Elkarrizketak grabatuak izan dira eta transkribatuak. Gainera, lekuko grabatu horietarik batzuek idatzizko inkesta bete dute ere.

Inkestatuek zuten libertateak corpus zabal eta aberatsa eman du, aniztasun handikoa. Batzuetan ez diete galderei denei erantzun eta zenbaitek beste zerbait aipatu dute, baina beti euskara batuari eta euskalkiei buruz zerbait ekarriz, beren esperientzia pertsonala, iritziak, sentimenduak, usteak, jarre-
rak azalduz.

1.3. Hamahiru galderak eta galdera itxien emaitzak

Inkestan hamahiru galdera badira, batzuk itxiak (bai / ez) eta besteak irekiak. Artikulu honetan sei galdera irekien erantzunak azalduko eta aztertuko ditugu. Hori baino lehen, hona zazpi galdera itxien erantzunen emaitza nagusiak.

Inkestatuen % 95ek Ipar Euskal Herrian euskara batua beharrezkoa dela pentsatzen dute. Aldi berean, % 92,5ek Ipar Euskal Herriko hizkeren berezitasunak zaindu behar direla uste dute. Horretan kontraesanik ez da, bistan da. Beherago ikusiko dugun bezala, hiztun baten hizkuntza-erregistro ezberdinetan batua eta euskalkia horietarik bi izan daitezke. Bestalde inkestatuen % 80k euskara batuak Ipar Euskal Herriko euskalkiei kalterik ekartzen ez diela pentsatzen dute eta erdiak baino gehiagok euskara batu berezi bat badela orain Ipar Euskal Herrian. Azpimarra dezadan euskara batua izatea Ipar Euskal Herrian beharrezkoa ez dela nehork ez duela erran. Euskaltzaindiaren zat, euskara kudeatzen duten beste erakundeentzat eta, oro har, euskara biziberritzeko eragile denentzat horrez ohartzea biziki garrantzitsua da. Bistan da hizkuntza-hautaketetan azkenean, mintzatzeko edo idazteko mementoan, hiztuna dela erabakitzen duena sekula ahantziz. Iduri luke lekukoentzat bi euskara mota horiek, estandarizatua eta tokikoa, beharrezkoak direla.

2. Inkestatuen profila

1.1. Ierroaldean erran dugu pertzepziozko dialektologiak lekuko gisa hizkuntzalari ez direnak hautatzen zituela. Hiztun arruntak erran nezake, nahiz, aldi berean, euskararen egoera Ipar Euskal Herrian gero eta gehiago aztertuz, euskaldun arruntik ez dela ohartzen naizelarik. Hemen «euskaldun zahar arrunt»en ikusmoldeak ez dira aztertu, euskara batua ezagutzen ez dutenak. Horietarik batzuek «euskara batua» erramoldea ere ez dute sekula entzun. Ikerketaren helburua ez zen euskara batuari buruz edo euskalkiei buruz Ipar Euskal Herrian entzuten diren aitziniritziak, estereotipoak edo klixeak biltzea. Batzuetan euskara ezagutzen ez dutenen bidez hedatuak dira. Hizkuntzei buruzko ideologian oinarrituak, eskolak, komunikabideek,

iritzi-liderrek jendarteko iritzian barreiatuak dira. Hori beste ikerketa baten aztergaia litzateke.

Ez, hemen hautatuak ziren lekukoek denek euskara lantzen dute: euskara eta euskaraz erakasten dute, euskaraz idazten dute eta beren lana argitaratzen, kazetariak dira, ahozko edo idatzizko itzulpen lanak egiten dituzte, euskara teknikariak dira tokiko kolektibitateetan, etab. Hots, Ipar Euskal Herriko bizi publikoan euskara “modelo” emaleak dira, bakoitzak bere modelo propioa eskainiz. Beren lanbidearengatik, euskararen transmitzaile publikoak dira eta, gainera / ondorioz, zuzenki irakasleak bezala edo zeharka, preskribatzaileak dira³. Lanean hizkuntza-hautuak egin behar dituzte. Zein euskara mota erabil? Euskalkia, bat baldin badute, edo euskara batua? Zein euskara batua? Nor da publikoa, zein da erabilera testuingurua, zein da euskarazko mezuaren helburua...?

Hona, laburbilduz, inkestan parte hartu duten berrogei lekukoek profil soziodemografikoa. Galderei erantzun baino lehen, fitxan datu pertsonal batzuk galdatauak zitzaizkien.

- **Sexua – Adina**

Sexuaren parametroan bi taldeak ez dira orekatuak: 14 emazte / 26 gizon. Adin-taldeak orekatuagoak dira: 35-49 urte: 4 emazte / 7 gizon, 50-64 urte: 7 emazte / 8 gizon, ≥ 65 urte: 3 emazte / 10 gizon. Aldiz 20-34 urteko taldean lekukorik ez da.

- **Sorterria**

Lapurdi: 11. Nafarroa Beherea: 15. Zuberoa: 6. Hegoaldea: 5. Frantzia: 3. Inkestatuen kasik % 40 Nafarroa Beherean sortuak dira.

- **Bizi herria**

Lapurdi: 24. Nafarroa Beherea: 6. Zuberoa: 7. Hegoaldea: 2. «Ez ezagutu»: 1. Sorterriari konparatzen baldin badiogu, Lapurdiko kostaldeko era-

³ Inkestan edo elkarrizketetan parte hartu dutenei denei eskerrak ematen dizkiet. Haien ekarpena gabe ikerlan hau ezinezkoa izanen zen.

kargarritasuna, Baiona-Angelu-Miarritze hirigunekoa bereziki, agertzen zaigu.

- **Nola ikasi duzu euskara?**

Datu pertsonaletan galdera horri ere erantzun behar zioten inkestatuek. Etxean: 35 (% 87,50), horien artean etxean bakarrik: 26, ikastolan ere: 2, autoikaskuntzaz ere: 7. Ikastolan: 1, AEKn: 1, AEKn eta autoikaskuntzaz: 1, autoikaskuntzaz: 1, erantzunik ez: 1. Familia transmisioa nagusitzen da. Datu garrantzitsu hori gogoan atxikitzeko izanen da inkestatik ateratuko diren datuak eta joerak ebaluatzeko mementoan.

- **Ofizio (ohi)a – Jarduera nagusia**

Irakasle (2. mailako, unibertsitateko, helduendako): 13 (% 32,50), idazle: 6, kazetari: 6, euskara teknikari: 6, itzultzaile: 4, beste (kultura eragile): 5. Irakasleen kategoria handiena da, inkestatuen herena.

3. Galdera irekiak: erantzunen aurkezpena eta analisisia

Galdetegia, 2. atalean erranik den bezala, euskalgintzan ari diren jendei hedatua zaie, xede nagusia Ipar Euskal Herrian euskara batuari eta euskalkiei buruzko iritziak biltzea delarik. Hastapen intuizioa eta lan-hipotesia ziren lurralde horretan euskalkiak mantentzen baldin baziren, gutxi gorabehera, barnealdean bederen, Zuberoan bereziki, ber denboran batasun prozesu bat ari zela azkartzen Lapurdin eta Nafarroa Beherean. Hori batez ere belaualdi gazteenengan, lehen-lehenik irakaskuntzari esker, familia-transmisioa oro har aski ahula delarik. Gainera, adineko euskaldun zaharrak, tokiko euskara etxean ikasi zutenak euskara batua zer den jakin gabe, desagertzen ari dira. Hau da mugimendu orokorra Ipar Euskal Herrian ere, euskaldunek gero eta gehiago euskara batua zer den badakite eta gero eta gehiagok menperatzen dute ere. Euskara batu bat bederen, Euskaltzaindiarena *stricto sensu* ez bada ere.

Galdera irekien erantzunak azter ditzagun orain. Sei ziren: 4.a, 9.a, 10.a, 11.a, 12.a eta 13.a. Erantzunak aski anitzak izan dira, baina, halere, kon-

traesanezkoak izan gabe. Ikusmoldeak ezberdinak izan daitezke, euskaldun zahar batenak eta euskaldun berri batenak, baina bai ere euskaldun zaharren artean, ikuspuntuaren, aztertu den objektuaren eta aipagaiaren araberrakoak.

Dena den, erantzun horiek azaltzen saia gaitzen joera nagusiak azpimarratuz. Bistan da ondoko bilduma hau artikulu honen idazlearen subjektibotasunaren mende dago; sintesi hau beste norbaitek bestelakoa eginen luke.

3.1. 4. Zoin dira euskara batuari lotuak diren arazoak Iparraldean?

Laugarren galdera honen formulazioa ez da neutroa. Ipar Euskal Herrian euskara batuarekin arazorik badela pentsaraz lezake, eta *arazo* hitza konnotatua da. Zailtasuna, problemaren adiera edukitzen du. Baina, bistan da, inkestatuak arazorik ez zela erantzun zezakeen, batzuek egin duten bezala.

- **Galdera honen helburuak**

Oro har, helburua zen erantzunen bidez ulertzea nola euskara batua onartu den Ipar Euskal Herrian, zein neurritan, balizko zailtasunak zein diren. Inkestatuari ulertarazi behar zion inkestaren egilea (Euskaltzaindiaren lantalde bat) lurralde horretan euskara batuaren papera bakarrik baikorra ez dela entzuteko prestik zela. Arauzaleek, normazaleek eta kontrakoek, euskara batuaren zaleek, euskara batuaren aurkakoek, euskalkien zaleek edo bi euskal erregistroen arteko bizikidetzak orekatu eta baikorra ikusten zutenek beren ikusmoldea azal zezaketen. Hizkuntza-kontzientziaren, iritzi ezberdinen, balio-judizioen biltzea eta, ondorioz, joera nagusien agerraraztea biziki baliagarriak izan zitezkeen euskara batua Ipar Euskal Herrian nola sartu eta bizi den ulertzeko.

Banan-banan atera ditudan «arazoak» aurkeztuko ditut. Gorago «euskara batua» lokuzioa definitzeko zailtasunak azaldu ditut eta «arazo» hitza eztabaidatu dut. Azaldu izan zen arazo bakoitza erranaldi motz batez laburbilduko dut eta gero aipamen batzuen bidez azalduko dut, jakinez erranaldi horrek iruzkinen aniztasuna behar den bezala sintetizatzen ez duela. Beren iruzkinetan inkestatuak batzuetan «arazo» bat baino gehiago azaltzen dituzte, erranaldi berdinean zenbaitetan. Saiatu naiz bereizten eta sailkatzen. Berrogei inkestatuetarik galdera honi lauk ez diote erantzun.

- **Arazoa frantsesa da (eta gaztelania), ez euskara batua**

Has gaitezen erantzun mota honekin: euskara batuari loturik diren arazorik ez dela. Hona aipamen batzuk ikusmolde honetakoak. Batek idazten du: «Galdera interesgarria: iradokitzen duzue, beraz, Iparraldean batuarekin arazoak badirela. Nik arazoak frantsesarekin ikusten ditut. Usu entzuten dut, alabaina, batuaren edo beste euskalki baten kontrako solasik. Ene aburuz ez du zentzurik». Beste batek: «Arazorik ez diot ikusten, euskara batuari esker euskara zabaldu eta zabaltzen delako. Euskararen arazoa ez da euskara batua, baizik eta frantsesa eta gaztelania. Ez ditzagun oztupoak eta mugak guk ezarri, nahiko baditugu». Beste batek: «Enetako, nik ez dut ikusten arazorik. (...) Hegoaldean ere eztabaida biziki sutsuak, horren inguruan. Nik ikusten dut badela tresna bat balio diguna denei elkar ulertzeko, idatzian, ahozkoan. Jartzen dituela base komun batzu. Nonbait euskara batuaren defendatzaile bat naiz». Eta horrek hau dio: «Behar bada galdera hori iragan aldian idatzi beharko zen, zeren eta ene ustez ez da gehiago arazorik gaur egun euskara batuarekin Iparraldean. Orain dela berrogei urte edo berrogeita bost urte euskara batua sortzen ari zenean entzuten ziren gauza batzuk. “Hori espainola dela”. “Hori ez dela euskara”. Gaur egun ez da gehiago entzuten hori. Uste dut onartua dela. Osoki onartua da».

Ohart gaitezen lau inkestatu horiek gure inkestatu adinekoetan ez direla.

- **Euskara batua Iparraldekoa ez da, urruntasuna, aurkezpen arazoa**

Hona aipamen batzuk: «Senditzen dute oraindik hainbat jende batua dela Hegoaldetik datorren olatu bat. (...) nere ustez komunikazio lana ez da ongi egin eta batua senditzen da gauza bat urrunekoa». Halaber lekuko horrek: «Ipar Euskal Herriko euskal hiztun gehienek pentsatzen dute batua ‘besteen’ eta ‘beste nonbaiteko’ euskara dela, hots, ez dute etxekotua. Ainitzendako batua ‘Hegoaldekoen’, ‘espainolen’, ‘eskolan ikasi dutenen’, ‘idazleen’ euskara da baina ez haiena. “Batua ene euskara da ere”, horra biharko hiztunak gogoan ukan beharko duena». Inkestatu horrek batua ongi aurkeztua ere ez dela dio: «Euskara batua nola presentatua den da ene ustez arazo nagusia: hau da aurkezten zaigu, gure eguneroko ohitura linguistikoetatik kanpo dagoen hizkuntza bat bezala, gehien bat Hegoaldetik heldu

den zerbait». Ber ildoan horrek: «Nagusiki euskara batua Hegoaldeko euskaratzat harturik dela iduritzen zait. Euskalgintzan lanean ari den jende multzo baten iritiz, euskara batua kontuan hartzekoa baldin bada ere, herrialde desberdinetako biztanleen artean euskara batuaren sinesgarritasuna ez da hain handia». Inkestatu zuberotar horrek hizkuntza urruntasuna azpimarratzen du: «Gük heben Züberoan gure euskalkitik zinez hürrün edireiten dügü». Eta horrek berdin: «Euskara batua hein bat urrun da Xuberoko hizkuntzatik eta Bizkaikotik ere». Lekuko horrek ere: «Jende batzuei urrun zaiela. Hautu batzuk egiten direla Iparraldeko berezitasun zenbait kontuan hartu gabe».

Inkestatu horrek Ipar Euskal Herriko gizartean hedatuak diren bi aitziniritzi oroitarazten ditu (bistan da, aitziniritzi horien errealitatea zientifikoki neurtzeko litzateke): «Euskaldun ‘espainolen’ euskara bezala kontsideratu izan daiteke batzutan. Euskalkien suntsitzaile izan daitekela pentsa dezakete beste batzuk». Beste batek hiztun zenbaiten euskara batuaren kontrako jarrera oroitarazten du: «Muturreko ikuspuntu batzuk: batzuk arrunt kontra, besteak zurruneği beharbada».

- **Euskara batua ez da ezagutua Iparraldean, nahasketa**

Hemen beste ikuspegi bat dugu, aitzinekoari lotua. Lekuko batek dio: «Jendeak eredurik ez du, Euskaltzaindiaren arauak eta *Hiztegi batua* ez ditu ezagutzen. Euskaltzaindiaz ikuspegi zaharkitua du. Hemen bakoitza bere gisa dabil». Eta zehazten du: «Batuari lotuak diren arazoak Iparraldean Hegoaldeko euskararen eragina da». Beraz euskara batua eta Hegoaldeko euskara nahasten dira. Beste batek dio: «Ainitz jendek ez dute ezagutzen euskara batua, badela ere ez dakite eta ez dute ere batere sendi batu horren beharra. Emeki bada emeki gauzak ari dira aldatzen». Eta horrek: «Iduritzen zait arazorik handiena dela euskalkiak eta batuaren arteko nahasketa: gero eta gehiago jendek, aditzarentzat, erranaldi berean erabiltzen dute berdin lapurtar forma bat, eta segidan batuazko forma bat, gehienetan, ene iduriko, lapurtar forma ezagutzen ez dutelako... berdin nafartar ala xiberotarrarentzat». Ber ildoan beste horrek: «Batez ere ez delarik alfabetatua, euskara batuaren arauak ez ditugu aski hurbiletik lantzen, ez ditugu ongi ezagutzen, batzutan nahasketa egiten». Irakasle batek: «Ene ikasleekin ikusten dituz-

tan problemak dira ez dakitela zer den euskara batua eta zer ez den. Zonbait aldiz batu egiteko nahiarekin (...) hemengoa baztertzen dute ustez ez dela batua. Adibidez *ene* bezala, ezarriko dute *nire* kopietan pentsatuz *nire* dela batua eta *ene* ez».

Inkestatu horrek, batua eta euskalki bat ezagutuak baldin badira ere, bien arteko oreka zailtasuna aipatzen du: «Ene ustez, euskaldun anitz nolabaiteko oreka baten bila gailtza: euskara batua erabili, bai, baina zenbatetaraino? Euskalkien ezaugarri batzuk ere atxiki nahi ditugu, baina zein?». Horrek ere holako kezka: «Testuinguruena: noiz baliatu batua, noiz euskalkia?»

- **Euskara batua arazoa da euskaraz eskolatuak ez direnentzat**

Lekuko batek: «Eskolatua ez den jendearentzat gogolan gehiegi eskatzen duke, bereziki aditz batuaren aldetik, nahiz eta, eskolatuak denak ere indar berezi bat egin behar duen, astekari, egunkariak irakurtuz edo irratia entzunez, euskara batuaren bilakaera jarraitzeko». Beste batek: «Euskara batuari baino, belaunaldi arteko komunikazioari lotutako trabak direla uste dut. Eskola bidez euskalduntutako belaunaldiek ez dute arazorik nik uste. Etxeko euskara naturala dutenek dute berenganatzeko kezka gehiago. Baina zubiak eraikiz lortzen da gaintitzen». Horrek batua ezagutzen dutenen eta ez dutenen arteko desbiderapena azaltzen du: «Ikastolak eta gau eskolak lotu dira euskara batuari, bai eta han hemenka aditu batzuk, baina ez jendetza arrunta. Euskalkiek dute oraindik lehentasuna. Jende batzuk batua hastio dute, beste zenbaitek ez baitezpada baina ez dute pratikatzen, ez ahozkoan, are gutiago idatzizkoan». Inkestatu horrek euskara batuaren ez ezagutzearen bi ondorio ezkor azaltzen ditu: «Iparraldeko anitzek ez dute (ongi) konprenitzen, bereziki ikastolan edo eskolan euskara ikasi ez duten horiek. Ondorioz, batua ez dute onartzen (beren) euskara bezala, beren euskara propioa pixka bat mespretxatzen dute». Beste batek: «Etxen ikasi duenak eta ez dena alfabetatua (anitz badira 40 urtetik harat, Lapurdi barnealde, B. Nafarroan eta Xiberun), horiek ez dakite nola erabili aditz bat. Adibidez “eginen dizut” erraiteko orde “eginen dautzut” erranen dute ez baitakite dizut erabiltzen denik ere. Ez dituzte euskara batuaren araudiak ezagutzen». Azken aipamen bat: «Agian ulertze arazo batzuk, euskara etxean ikasi duten adineko batzuekin. Xibe-

ruan, arazo horiek okerragoak dira, euskaldun zaharrek xiberutarra baizik ez baitute entzun».

- **Euskara batuak euskalkiak ahul litzake**

Hau da Ipar Euskal Herrian hedatu den beste aitziniritzi bat. Inkestatuek ez dute hola pentsatzen, baina kezka hau aipatzen dute: «Gero badira euskaldun batzuk ez dutena nahi batuera erabilia izan dadin, euskalkiak galtzeko arriskuan direla argumentatuz. Eskualde batzuetan azkarrago susmatzen da hori, Xiberun gehienbat». Inkestatu horrek lexiko arazoa azaltzen du: «Hiztegi kontuak dira gehien bat, nire iritzian. Argi da, Hego Euskal Herriko hedabideetan baliatzen den «euskara batu estandar» horrek euskaldunen gehiengoaren kokaleku den Gipuzkoaren erdialdeko hitzez osatuta dagoela, han ere egon daitezkeen euskararen berezitasunen eta –nola ez?– Ipar Euskal Herriko euskararen hiztegi zabaltasunaren kalteetan». Beste horrek, euskalkien galtzeaz gain, gorago aipatu den nahasketa azpimarratzen du gazteen hizkeran: «Ahozkoan bereziki naturaltasun falta gerta daitekeela, eta Iparraldeko edo tokian tokiko berezitasun batzuk galtzen direla; hots gazte anitz bereziki, gipuzkeraz ari direla, Iparraldekoak izanik ere».

- **Euskara batuaren “musika” ezberdina da**

Inkestatu batek idazten du: «Orokorki, inpresione hau datorkit (behar bada euskaldun zahar batentzat baizik balio duena) Iparraldeko euskara eta batua (gipuzkera) ez dira berdinak, ez dute musika bera. Gurea ibai goxo bat da. (...) Batuak badu, nik maiz senditzen dudan arabera bederen, halako metaliko bortitz bat». Galderari erantzun dioten hogeita hamasei inkestatuetarik bik dute holako ikusmolderik aipatzen. Bigarrenak, elkarriketatuak, dio: «Problema da euskararen galtzea, hori bai musika joana delarik eta hainbertze hainbertze trufatu baitira xaharretaz. (...) Pentsatzen dut trauma batzuk lehenagokoak izan direla; hori gehitu da, gehi trauma delarik ere musika horren galtzea».

Oro har, aipamen eta ikusmolde ezberdin horiek kontuan hartuz, erran dezakegu Ipar Euskal Herrian arazoak baino zailtasunak badirela euskara batuaren eta euskalkien artean. Oroitaraz dezadan inkestatuen

% 87,50ek euskara etxean ikasi dutela eta ondorioz haur denboran euskalki batez menperatu direla eta, bestetik, % 95ek Ipar Euskal Herrian beharrezkoa ikusten dutela euskara batuaren izatea. Halere, emeki-emeki, zailtasun horiek konpontzen dira euskara batuaren ezagutzaren garapenarekin. Bistan da euskalkiak eta tokiko hizkerak arriskuan direla, gutiago transmititzen baitira, baina ez bereziki euskara batuarengatik, lehenik hizkuntza-komunitate elebidun horretan nagusitzen den frantses hizkuntzarengatik baizik.

3.2. 9. Iparraldean egiten diren huts moten artean, zoin dira larrienak, zure ustez? Zoin dira ohikoena?

- **Galdera honen helburuak**

Galdera horrekin inkestatuen beste alde bat agerrarazi nahi da. Ikusi dugun bezala denak era batez preskribatzaileak baitziren (irakasle, idazle, kazetari, itzultzaile, euskara teknikari... izanez), euskararen kalitatea nola ikusten zuten erran zezatela zen helburua. Hori ere lagungarria izan baitzitekeen EEE euskarri numerizatuaren sortzaileentzat eta erabiltzaileentzat: euskararekiko arazoak, dudak, balizko «hutsak», frantsesaren eragina, kalakoak, etab. agerraraztea.

Bederatzigarren galdera horrekin euskararen balizko puristek, garbitzaileek, zuzentzaileek, hiperzuzentzaileek, arauzaileek beren ikusmoldea eman zezaketen, baina bai ere eskalaren beste buruan “huts” nozioa bera dudan ezartzen zutenek edo hutsik ikusten ez zutenek. Oro har, inkestatuen hizkuntza-jarrera eta hizkuntza-zentzumena atera zitezkeen, berriz denek euskararekin lanbidea dutela oroitaraziz.

- **Galdera honi lotuak diren zailtasunak. Huts bat zer da?**

Lehen zailtasuna huts bat zer den jakitea da⁴. Beste zailtasunetarik bat da jakitea aipatu den hutsa euskara ikasten dutenek egiten dutenetz, euskal-

⁴ Horri buruz, frantsesa irakurtzen duenak Henri Frei hizkuntzalari suitzarraren 1929ko *La grammaire des fautes* liburua hastapenetik bukaerara irakurri beharko luke. Hona bakarrik Sarreraren

dun berriek ala ez, euskara guti erabiltzen dutenek edo egun oroz euskaraz mintzatzen diren Iparraldekoek. Irakasle horrek euskara ikasle heldu bartzuen joera azaltzen du, frantsesez pentsatzea eta itzultzea: «Frantsesetik itzultzea nik uste dut B maila batetik goiti hori gutiago egiten da. Dependitzen du ikasleaz. Batzuk atxikitzen dute luzaz... biziki luzaz».

Hemen ere banan-banan inkestaturen iruzkinetan atera ditudan «huts motak» aurkeztuko ditut. Inkestatu batek “huts” bat baino gehiago aipa ditzake, batzuek hamar bat. Identifikatu ondoan sailkatuko ditut, huts bakoitza zenbat lekukok aipatu duten kontatuz. Berrogei inkestatuetarik bik galderari ez diote erantzun. Usuenik lekukoek «huts larrienak» eta «ohikoenak» ez dituzte bereizi. Batek idazten du: «Ez naiz gai hierarkia baten egiteko». Beste batek: «Zoin da larritasunaren neurria?». Eta bigarren mailako euskara irakasle batek hori dio: « Ez nezake erran larriena denik. Baina hau da niri txokatzen nauena eta ari bainiz egun guziz horren kontra borrokatzen klasean ikasleekin. (...) Behar bada horiek [ikasleek egiten dituzten hutsak] nagusituko dira eta hemendik hogoi urtera norma izanen da, araua izanen da eta hala» (horri buruz ikus Frei, 1929). Ondoko bilduman aipatu diren huts denak ez ditut zerrendatuko, baina bai gehiengo. Inkestatu horren ustez huts anitz badira: «Larrienak: Hainbeste dira!!! Gramatika alorretik haste... Eta egoera tamalgarri honetan, he-dabideek –gehienez, euskarazko telebista eta irratiek– dute erantzukizun handiena». Eta horrek galderari hola erantzuten dio: «Ez dakit. Baina irratia anitzetan entzuten dut, eta anitzetan, frantsesetik hartu esamoldeak entzuten ditut».

Baina inkestatu horrentzat hutsa ez da gaia: «Ez dakit. Ez naiz batere euskara garbi eta on baten aldekoa. Nire ingurune familiar guzia erdaldun hutsa izan da betidanik. Etxeko euskara zer den ez dakit. Ikastolari esker euskaldundutako produktua naiz. Hutsak baino jendeak interakzioan ikus-tea zait inporta». Elkarrizketatu batek dio: «Beraz zer da hutsa eta zer da ez?» Beste lekuko horrek erantzunean hizkuntza-hutsak baino euskaldun

lehen bi erranaldiak, nik itzulirik: «Zuzenaren eta ez zuzenaren arteko bereizketa gramatikariak topatzen dituen lehen zailtasunetarik bat da. Zer da deitzen hizkuntza-gertakari “zuzena” eta, “huts” bat denean, horrekin zer erran nahi da?» (17. or.).

batzuen jarrera salatzen du: «Euskaraz idazten eta irakurtzen ez ikastea; bilkura “nagusietan” frantsesez aritzea euskaldunekin; haurrei euskara ez irakastea eta ikastoletan ez jartzea. Frantsesez mintzatzea beti hasieran eta tartean euskaldunekin ere; taldean, euskara ez dakien bat dagoen bakoi-tzean, frantsesez egitea etengabe...».

- **Hutsik ez**

Batzuek huts nozioa bera zalantzan ezartzen dute. Hona idazle baten oharra: «Ez dut huts hain larririk ikusten gure erabileran, huts bakarra litzateke Iparraldeko euskara (batua) ez batere erabiltzea, preseski hutsak (larriak) egitearen beldurrez». Eta beste ikusmolde bat: «Batzuentzat huts bat dena ez da denentzat hala izaiten. Badira beti xuxenketa egiten artzen direnak, berek hutsik sekulan egiten ez balute bezala. Barkatu, ni ez naiz horietarik». Elkarrizketatu horrek Iparraldeko joera eta Hegoaldekoa konparatzen ditu: «Nik ez dut ikusten Iparraldean egiten dugun huts be-rezirik; ez balinbada erdararen eraginez. Eta gainera Iparraldean Hegoal-dean baino ainitzez hitz gutiago erabiltzen da frantsesetik españoletik datozenak. Hegoaldean, leku batzuetan, hango euskara ulertzeko behar duzu ere espainola jakin».

Baina gehiengoak hutsak aipatzen ditu. Irratilarri batek hau dio, bere la-naz mintzatuz: «Hutsak. Errepikatzen ditugu eta zaila zaigu garbitzea zeren eta oso errotuak dira gaur egunean akats horiek. Eta orduan lan bat egin behar horiek kentzeko. Denek dakizkigun akatsak dira. Batez ere frantses itzulpenak, pasiboa, nor nori nork. Baditugu bai akatsak». Eta itzultzaile horrek hizkuntza kalitatearen beste alde bat Ipar Euskal Herrian aipatzen du, arazo bat bere ustez: «Ez nuke horrela erantzungo [huts larrienez edo ohikoenez]. Ene ustez, IEH-n hizkuntzaz arduratzen diren zenbait pertsona eta erakundek erabaki batzuk hartzen dituzte “en petit comité” eta ondorioz ikuspegi hertsiegia dute».

Nik balizko «huts» edo arazo horiek ez ditut iruzkinduko, inkestatuen usteak sailkatuko eta azalduko ditut, besterik ez. Adibideak inkestatuenak dira; emanik den lehen forma okerra edo ezegokia da eta bigarrena zuzena edo egokia beren ustez, bistan da.

• **Frantsesaren eraginari lotuak diren hutsak: itzulpen zuzenak, kal-koak...**

- frantses itzulpenak, euskara frantsesez pentsatua baita: 4 inkestatu. Batak hau idazten du: «Hutsak egiten dira frantsesez pentsatzen delako eta gero euskarara itzultzen». Eta beste batek dio: «Ez nuke huts zehatzik aipatuko. Euskarazko testu anitz frantsesez pentsatuak direla ikustea iduri zait aski larri»;
- code-switching: 1 inkestatu. Esplicitzen du: «Code-switching egitea, erran nahi baita hizkuntza batean hasi bestean burutu, diglosia handi baten seinalea: euskaraz hasi frantsesez bukatu, frantsesez hasi eta euskaraz bukatu»;
- nor-nori-nork (eta nor-nori), datiboaren marka kenduz aditzean: 7 inkestatu;
- bihurkaria eta elkarkaria: 2 inkestatu. Adib. “ikusten naiz” / “ene burua ikusten dut”, “ikusiko gira” / “elkar ikusiko dugu”;
- alokutibotasuna ez erabiltzea: 2 inkestatu;
- alokutibotasuna erabiltzea testuinguru neutro batean: 1 inkestatu (irratian adibidez);
- pasiboaren erabilera: 2 inkestatu;
- narrazio orainaldia: 2 inkestatu. Adibidea nik asmatua da: «1849an Etxahun Barkoxek Xahori omenaldi testu bat idazten dio»;
- perpaus konpletiboa ez erabiltzea (-la): 1 inkestatu. Adib. «Ikusten dut hor da»;
- erramolde kalkatuak *gose, bero*: 2 inkestatu. Aipamena: «Gose dut edo bero dut!»;
- aditz ez jokatuaren erabilera: 3 inkestatu. Aipamena: «-tea/tzea atzizkiaren gehiegizko erabilera, -teko/tzeko edo -tzera(t)/tera(t) atzizkiaren orde»;
- erakusleen erabilera okerra: 1 inkestatu. Aipamena: «“Hau, hori, hura” erakusleen erabilera okerra hurbiltasuna kontuan hartu gabe»;

- ergatiboaren ez ematea (edo gaizki): 12 inkestatu. Lekuko batek “k sakratua” deitu du. Beste batek idazten du: «“Mattin erran du”, ez bakarrik euskaldun berrienganik, euskaldun zahar zenbaitenganik ere»;
- partitiboaren galtzea: 2 inkestatu. Batek idazten du: «Nik erran neza-ke ohikoenak direla larrienak usu eta frantsesetik hartzen den guzia. Ez dakit, ez da hanbeste ergatiboarena, ene iduriko ikusten dut biziki partitiboa galtzen ari dela»;
- instrumentala ez erabiltzea: 2 inkestatu. Aipamen bat: «“Baionari bu-ruz hitz egin du”, hobe “Baionaz hitz egin du”»;
- inesiboaren erabilera adlatiboaren orde: 5 inkestatu. Adib. «Baionan joan naiz»;
- inesiboa gaizki erabilia: 1 inkestatu. Aipamena: «Lokatiboan *-an* bu-kaera kontsonanteen ondotik ere, *-ean* beharrean: “hitzan”»;
- mugatua (*-a*) mugagabearen orde: 2 inkestatu;
- *bere / haren*: 3 inkestatu. Aipamen bat: «*Bere* desagertu zaigu»;
- *sobera / zinez, -egi*: 4 inkestatu. Adibideak: “sobera ongi zen” / “zinez ongi zen”, “sobera beroa” / “beroegi”;
- *baizik (ez gabe) = bakarrik*: 4 inkestatu. Adib.: “Hau baizik da”;
- zenbakiak: milakoak *eta* gabe: 4 inkestatu. Aipamen bat: «“mila hama-sei”, nik segurik beti bi mila eta (sic) hamasei entzun eta erran dut»;
- frantses hitza *-arekin* euskalduntzea: 1 inkestatu. Aipamena: «Fran-tziako mintzajearen “a” final bateki hitz baten euskalduntzea»;
- hizak *-a* berezkoa (organikoa) duen ala ez ez jakitatea: 3 inkestatu;
- hitzen ordena erranaldian: 5 inkestatu. Lekuko batek: «Ikusi nahi dut eta ez *nahi dut ikusi». Beste batek (zuberotarra): «Errandüren aldrebes ezartea (euskal egituraren ez errespetatzea)». Eta horrek euskara ikasten dutenez: «Euskaraz erraiten dute frantsesez erranen luketen bezala»;
- *r* edo *rr* gaizki ahoskatuak: 2 inkestatu.

- **Hegoaldeko euskararen, gipuzkeraren eraginari lotuak diren hutsak**

- aginteran edo subjontiboan, aditzoina + aspektu burutuaren egitura erabiltzea (“partizipioa”): 2 inkestatu. Adib. aginteran *Atxiki!* erratea *Atxiki!*-en ordeztu, *Hartu!* *Har!*-en ordeztu. Aipamena: «Partizipioaren erabilera nahasia, Gipuzkoaren mimetismoz»;
- *deitu* (nor-nori-nork, Iparraldean nor-nork): 1 inkestatu. Adib. Hegoaldean «Deituko dizut»;
- iraganaldia (hurbila eta urruna): 1 inkestatu. Hau idatzen du: «Iragan hurbila eta iragan urruna ez dira gehiago kontutan hartzen. “Duela bi hilabete etorri zen”, “atzo etorri da”: orai dena iragan urrunean ezartzen da, atzokoa ere, “atzo etorri zen”»;
- diskurtso markatzaileak: 1 inkestatu. Hau idatzen du: «Hegoaldean baino urriago frantses juntagailuak erabiltzea (*bon, voilà*), nahiz gaztelaniazko *bueno* eta *klaro* ere entzuten»;
- lexiko-mailegatzea (Iparraldean baliokidea izanik ere): 1 inkestatu. Adibidez: *bikain*, *existitzen*. Hori huts bat ez da, ez ere bi hizkuntzen arteko kode-nahasketa. Iparraldeko lexikoaren aberastea da era batez, baina bai ere pobretzea izan daiteke ordezkatzeko osoa baldin bada.

- **Euskara mota ezberdinen nahasketa**

1 inkestatu. Lekukoak idatzen du: «Lehen, jendea bere herrian bizi zen, ia bizi osoa, beraz euskalkiak bazuen bere eremua, garatzen zen lekuaren, lanbideen ... arabera. Biztanleak guti mugitzen ziren. Gaur egun eskema hau guztiz aldatu da. Adibidez, nahiz eta Garazin bizi, batek Baionan lan egin dezake, eta asteburuetan Donostiara edo Bilbora joan. Euskara “nahasketak” gertatzen dira».

Hori 3.1. lerroaldean ikusi dugu jadanik. Nahasketa hori *stricto sensu* huts bat ez da.

- **Erregistroak gaizki erabiliak**

1 inkestatu. Hori aitzineko nahasketari hurbil zaio, berdina ez baldin bada. Inkestatuak erregistroa zer den zehaztu ez du.

- **Iparraldeko tokiko erramoldeak**

- nor-nork erabiltzea nor-nori-nork-en ordeztan (kostaldeko solezismoa deitu dena): 4 inkestatu. Lekuko batek aditz forma hori aipatzen du: «“Ogia ekarri nau” Sara, Senpere, Azkaine aldean...». Beste baten adibidea: «*zaitut* Saran *dautzut*-en ordeztan»;
- *ukan* / *izan*: 2 inkestatu. Aipamena: «Lapurdin, Senpere, Azkaine, Sarako inguruetan, “ukan” aditza ez da kasik sekula erabiltzen, “izan” aditzak du ordaintzen. Batzuentzat tokiko berezitasun bat da, beiratu behar litekena; enetzat huts bat da, zuzenarazi behar dena».

3.3. 10. Zuk, euskara batua non, noiz eta norekin baliatzen duzu?

- **Galdera honen helburuak**

Hamargarren eta hamaikagarren galderen bidez euskara batuaren eta euskalkiaren –inkestatuak bat baldin bazuen– erabilera ebaluatu nahi zen. Bistan da, hori gogoan atxiki behar dugu beti, holako emaitzak inkestaren erantzunetarik ateratzen dira, erran nahi baita datu aitortuak direla eta ez zientifikoki neurtuak. Datu zehatzak ez dira, baina halere, pertzepziozko dialektologiak printzipioz onartzen duen bezala, baliagarriak errealitatea hobeki ulertzeko.

Hamargarren galdera hau argia zen eta inkestatuak interpretazio arazorik ukan ez zukeen, beste galdera batzuekin gerta zitekeen bezala. Helburua zen jakitea hizkuntza-profesional horien euskara batuaren baliatzea nolakoa zen. Berrogei inkestatuekin erantzun fidagarria atera zitekeen, horietarik lauk (% 10) euskalkirik familian edo haurtzaroan ikasi ez zutela kontuan hartuz. Azken horiek euskara batua edo hobe euskara batu bat baizik ez dute ezagutzen eta baliatzen.

Inkestatuek denek euskara batua edo, hobeki erran, euskara batu mota bat (edo gehiago) ezagutzen dute. Berrogei inkestatuetarik hiruk galdera horri zuzenki erantzun ez diote. Erantzunak aski laburrak izan dira. Bizpahiru erranaldi usuenik. Batzuetan hitz bat. Adibidez: Non? «Hegoaldean».

Bestalde, gehienak, erantzun orokor bat eginez, hiru galderei (non, noiz, norekin) banan-banan erantzun ez die.

- **Erantzunen aniztasuna eta inkestatuen euskara batua**

Erantzunen bilduma aurkeztu baino lehen, hona aipamen hautatu batzuk inkestatuen jarreraren aniztasuna agerrarazteko. Hegoaldean sortu den irratilari batek dio: «Egunero baliatzen dut euskara batua. Ni Hendaian bizi naiz eta Hendaian badugu nahasketa handi bat. (...) Hegoaldekoek erraiten didate mintzatzen zira Iparraldekoak bezala, eta hemen errango didate mintzatzen zira oraindik gipuzkeraz». Nafarroa Beherean sorturik den euskara teknikari batek idazten du: «Euskara batua lanean erabiltzen dut (...), Hego Lapurdiko jendearekin ere bai. Berriki Donostian plantatu naizenez Donostian ere. Oro har eta aldaera batzuk erabiltzen badituz ere (*gira* eta ez *gara*), batuko aditz formak gero eta gehiago erabiltzen ditut (*dizut* eta ez *dauzut*, *diot* eta ez *dakot*)». Kulturen ari den beste batek: «Ez dut uste euskara batua baliatzen dutanik, nahiz hizkuntza pixka bat landu, nahasketak egiten segitzen dut, burura heldu dena naturaltasunez erabiliz. Saiatzen naiz leku publikoetan egiten dituztan animazioetan euskara batutik hurbil den hizkuntzan aritzea – menturaz ere Hegoaldera joaten naizelarik, Hegoaldeko hedabideetan hitza hartzen dutalarik?» Bigarren mailako irakasle batek dio: «Kasik nehorrekin. Ikasleekin idatzia; idazten dutalarik bakoitz euskara batuan idazten dut. Hori da araua nire buruari erran diotanaz, bortxatzen niz horren egiterat. Batzuetan eskapatzen zaut, baina gero hop! Ezabatzen dut. “Eta barkatu erran dugu euskara batuaz idatziko genuela: *zaut* ez, ez, ez, *zait* idatziko dut, eta *daut* ez, ez, ez, *dit*. Bainan gero erabiltzen ez etxen, ez lankideekin. Klasean”. Bigarren mailako irakasle ohi batek batua beti erabiltzen du, baina “egokitua” solaskidearen arabera: Non? «Toki gehienetan batua egokitua». Noiz? «Denbora gehienetan batua egokitua». Norekin? «Denekin batua egokitua». Kazetari zuberotar batek: Norekin? «Zuberoan gertatzen diren Hegoaldeko euskaldunekin hitz egitean, adibidez... eta behin baino gehiagotan gertatu da hauek ez zirela ohartuta ere Züberoan euskalki berezia dugula, uste zutelarik nire euskara estandar hori bera mintzatzen genuela hemen!... Zuberotarrez soilik mintzo zirenekin topatzen zirelarik, euren harridura ez zen gutxikoa...». Euskara teknikari batek, euskal-

dun berri denak: «Gehienetan, jende gehienarekin. Nik euskara 26 urtetan ikasi nuen, eta nire gurasoak ez dira euskaldunak. Beraz euskara batua baliatzen dut, nahiz eta jende batzuekin, euskalkiek batzuetan pixka bat “kutsatzen” nauten (hots Hegoaldekoekin baliteke “zer moduz” erratea, edo Baxe-Nafartar batekin “dautzut”)».

- **Sailkatze zailtasunak**

Erantzunak taula batean sartzen saiatu naiz (1. taula). Inkestatuak erantzun bat baino gehiago eman litzazke eta erantzun ezberdin horien sailkapena egiteko, zailtasun batzuk agertu zaizkit. Batzuek, adibidez, euskara batua Hegoaldean, Hegoaldekoekin erabiltzen dutela idazten dute, eta ez besterik. Aldiz, Ipar Euskal Herrian euskara batu berezi bat badela idatzi dute. Beraz, hamargarren galderari erantzuten diotenean aipatzen ez baldin badute ere, lurralde horretan ere batzuetan euskara batu bat erabiltzen dutela susma dezakegu. Berriz, *euskara batu* erramoldearen definizioaren aniztasuna agertzen zaigu, nahiz gizarte-mailan, hizkuntza-komunitatearen mailan, nahiz norbakoaren mailan. Hau da, adibidez, galderari zuzenki erantzun ez dion euskara teknikari batek idatzi duena. Erabiltzen duen euskara (batua)ren izaera azaltzen du: «Ez dakit xuxen zer nolako euskara dutan, sar hitzan erran baitizuet partez aitamen erranetarik ikasia nuela (biak xiberotarrak) eta bestalde auto-formakuntza ez estandarra (hein batean hainbat euskalkien arteko nahasketa, batuarena sartuz), orduko lagun euskaldun euskalki ezberdinak medio. Batua ez estandarra erabiltzen dudala banerrake, ausartzen baniz». Itzultzaile horrek bere estrategia eta euskara batuaren mota azaltzen ditu: «Nonahi. Noiznahi. Nornahirekin ia. Aitortu behar dut gure euskalkia erabiltzean ere, den-mendreneko duda badudalarik –batez ere aditz forma ezohikoetan (ezan + KE!)–, batura jotzen dudala. Salbuespen bakarra, *toka-noka*. Orduan erosoago ari naiz “Baigorriko moldean” batuaz baino». Ondorioz euskara batu mota hori Baigorriko hizkerak “kutsatua” da, partez bederen.

Idazle horrek idazten du: «Denetan, lagun artean, Iparraldean bezain Hegoaldean, baina batzuetan nahitara etxeko euskaraz ere ari naiz». Beraz taulan “Beti” lerroan eman dugu, nahiz eta euskalkia ere batzuetan erabiltzen duen. Beste adibide bat. Unibertsitateko irakasle elkarrizketatu batek dio: «Iparraldean dependitzen du bainan ingurumen akademiko batean dudarik

gabe. Irratian ari nizalarik kasu emaiten dakot ene hiztegi, ene hitz egiteko moldeari dudarik gabe; eta klasean ere bainan ez ukatuz ene jitea. Nondik heldu nizan ez dut hori ukatzen eta gero Hegoaldean dependitzen non ere». Taulan hiru lerrotan eman dut: “Hegoaldean”, “lanean” eta “ekintza formaletan”. Beste batek euskalkia ez dutenekin eta Hegoaldean aipatzen ditu. Bietan eman dut, nahiz euskalkia ez dutenen artean Hegoaldekoak dauden.

- **Non – Noiz – Norekin: bilduma**

1. taula. Lekukoen euskara batuaren erabilera

	Zenbat	% (36 inkestuetarik)
Beti (= nonahi, denekin)	5	% 13,88
Hegoaldean / Hegoaldekoekin	19	% 52,77
Lapurdiko kostaldean	3	% 8,33
Ene euskalkia ez dutenekin	6	% 16,66
Euskaldun berriekin	4	% 11,11
Euskara ikasten dutenekin	2	% 5,55
Ezezagunekin	3	% 8,33
Solaskidearen arabera	3	% 8,33
Lanean	18	% 50
Ekintza formaletan	5	% 13,88
Irakurketan / medietan	2	% 5,55
Etxean	1	% 2,77
Sekula	0	% 0
Erantzunik ez	4	kontuan ez hartuak ⁵

Hona ondorio zenbait. Erabilera aipatuenak dira, alde batetik Hegoaldean eta Hegoaldekoekin (% 52,77), eta, bestetik, lanean (% 50). Lehena ez da estonagarria. Badakigu hastapenetik euskara batuaren sortzaileek helburuen artean hori bazutela: euskaldunen arteko euskara idatzi mota bat

⁵ Galdera honen kasuan, eta ondokoan, Hegoaldeko dialektologoaren erantzunik ez ditut kontuan hartu.

sortzea elkar ulertzeko. Bigarrenak erakusten du euskara batua inkestatu horien lan-hizkuntza dela edo bederen hizkuntza erabilia lan egiteko. “Beti” erran dutenekin lotuak, kasik % 60 dira lanean erabiltzen dutenak. Gehiago direla pentsa dezakegu. Aldiz, ikusiko dugun bezala, euskalkia gutirentzat da lan-hizkuntza (irratari batzuetan salbu, Xiberoko Botza adibidez).

3.4. 11. Eta zure euskalkia non, noiz eta norekin baliatzen duzu?

- **Emaitzak ulertzeko ohar batzuk**

Berrogei inkestatuatarik hiruk galdera horri zuzenki erantzun ez diote edo elkarrizketan inkestagileek galdatu ez diete. Erantzunak sailkatu eta, 2. taulan bildu ditut. Erran bezala, 35 inkestaturik (% 87,50) euskara etxean ikasi dute, euskalki bat beraz. Batek bere euskara zein den ez zekiela idatzi du (3. 3. ikus), baina «etxean, ikastolan eta gizartean» euskalkia erabiltzen zuela. 10. galderan euskara batua beti erabiltzen duela idatzi baitu, ez dut hemen kontuan hartu.

Bik euskalkirik ez dute. Horiatarik batek idazten du: «Ez dut euskalkirik, nerea den euskararik. Aldiz, Xiberoan, Lekeition, Oztibarren edo Senperen nire solaskideekin sinkronizatzeko ahaleginak beti eginen ditut». Inkestatuen gehiengoak erantzun bat baino gehiago eman ditu. Bistan da, gerta daiteke duen erabilera gune (non), une (noiz) edo solaskide bat (norekin) aipa ez lezakeela. Hau da ere inkesta mota honen beste muga eta ahulezia.

- **Euskalkien erabileraren aniztasuna**

Dialektologo izan gabe, Hegoaldean sorturik den irratilari horrek euskalki-aniztasuna erabiltzen saiatzen da, familian edo lanean: «Joaiten naizenean nere herrira euskalkia erabiliko dut nere herrikoa. Burasoekin beste euskalki bat erabiliko dut eta hemen lanean edo juntatzen banaiz Azkaine-ko komertsio batekin entseatuko naiz berera moldatzen. (...) Belarrian atxikitzen ditugu erregistro ezberdinak, orduan entseatzen gira xurgatzen (...). Hizkuntza da gure artea hurbiltzeko jendearengana. (...) Borta idekiko digu hizkuntzaren bidez. Ni beti entseatzen naiz (...). Hortarako da euskalkia interesgarria neretako. Gero xiberutarrez aritzen nizen ez dut atxemaiten

baña bon entseatzen naiz». Idazle batek: «Anai arrebeekin, Oragarreko eza-gunekin, Amikuzeko jendeekin. Baina euskalki hori ere batuaren baitan dagoela iruditzen zait, eta ez dut halako konplexurik erabiltzeko». Inkestatu horrek bi euskalki balia litzake: «Familian, haur eta ilobekin, anaia-arrebekin, koinatekin.... eta gurutzatzen ditudan xiberotarrek. Bainan gertatzen zait ere lapurtarrez mintzatzea, solaskidea lapurtarra dutalarik eta sentitzen dutalarik ez duela euskara batua aise ulertzen».

Aspaldidanik Iparraldean bizi den bizkaitar horrek idazten du: «Bizkaiko eta bizkaiera egiten den Gipuzkoako eta Arabako herrietako lagunekin bizkaiera batua. Lehen Gipuzkoako beste herrietako gipuzkoar lagunekin gipuzkeraz ari nintzen, baina orain batueraz gehienetan. Iparraldeko gehienekin ere batueraz saiatzen naiz». Taulan lekuko hori “eskualdean” sailean eman dut, haren euskalkia Hegoaldekoa dela jakinez. Beste inkestatu horrek alokutibotasuna nola eta norekin erabiltzen duen zehazten du: «Toka-noka ene anaiarekin Landibarren, hurbileko adixkide batzuekin. Xuka: amarekin, familiarekin, Garazi-Oztibarre eskualdeko lagun batzuekin.... Zuka, ene euskalkian: lanean, eguneroko harremanetan».

- **Non – Noiz – Norekin: bilduma**

“Familia / etxean / sortetxean” saila anitz aipatu izan da (inkestatuen % 67,65). Halere sortetxean herrian gurasoekin mintza zaitetzke, aldiz bizi etxean ez. Inkestatu batek, norekin galderari erantzunez adibidez, familia eta haurrak aipa litzakeela. Beraz sail hori ez da zehazki definitua eta zenbaki hori arretaz kontuan hartu behar da. Bestalde, “Familia / etxean / sortetxean”, “Haurrekin” (% 17,56), “Anai-arrebekin” (% 11,76) eta “Gurasoekin” (% 23,52) lotzen baldin baditugu, euskalkiak biziartzeko, familia era zabalean harturik gune estrategikoa dela ohartzen gara. Irakurle batek hori erran lezake: «Baina, hori bagenakien». Bai, edo hobeki erran, «susmatzen» edo «pentsatzen genuen». Inkesta honek zantzu bat gehiago ekartzen du. Hau da berrogei urte guttiagoko elkarrizketatu batek dioena. Hurrengo galderarekin aipatuko dugun euskararen erabileraren bilakaera bere euskal hiztun ibilbide pertsonalean erakusten du: «Ene amarekin. Gehiago sortetxean. Familiarekin. Nik erranen nuke nire biziko garai bati lotuak diren harremanei. Ahoz. Gero, idatziz pena dut erraitea, bainan uste dut sekulan

2. taula. Lekukoen euskalkien erabilera

	Zenbat	% (34 inkestuetarik)
Ahal duten leku denetan	4	% 11,76
Iparraldekoekin	2	% 5,88
Euskaldun zaharrekin	7	% 20,58
Solaskidearen arabera	2	% 5,88
Eskualdean	10	% 29,41
Herrian (udala) / sorterrian	8	% 23,52
Karrikan	2	% 5,88
Ingurumen hurbilean, lagunekin	15	% 44,12
Familian / etxean / sortetxean	23	% 67,65
Haurrekin	6	% 17,65
Anai-arrebekin	4	% 11,76
Gurasoekin	8	% 23,52
Gurasoen belaunaldikoekin	1	% 2,95
Adinekoekin	1	% 2,95
Lanean / lankideekin	8	% 23,52
Lan idatzietan	1	% 2,95
Erantzunik ez	6	kontuan ez hartuak

ez litzaidake burutik pasatuko idaztea ene lankide bati edo edozoini euskalki hortan. (...) Nire kasuan hori hala da. Nire kasuan bada gazte denbora euskalkia. Eta gero beste garai batzuk gehiago euskara batuan. Ez dut hortako lotzen modernitate edo zahartasun ixtorio bati».

“Ingurumen hurbilean, lagunekin” (% 44,12) da bigarren sail aipatuena. Erranen nuke euskalkia dela hurbiltasunaren euskara, adiskidetasunarena eta lasaitasunarena. Euskalkiak erregistroetan bere lekua badu. Hori ere «bage-nakien», hemen ildo honetan beste zantzu bat badugu. Eta nik uste, nahi ala ez, denborarekin, euskalki bat menperatzen ez dutenek ere beste erregistroa(k) sortuko d(it)u(z)tela beharren eta zirkunstantzien arabera. Hau da 4. galderari (*Zoin dira euskara batuari lotuak diren arazoak Iparraldean?*) erantzuz-

nez, bigarren mailako irakasle ohi batek idatzi duena: «Erranen nuke erregistroen ez ezagutzak duela muga handiena ezarten. Euskalkiko erregistro zaindua erabiliko balitz, baturako urrats txikia geldituko litzatekeela uste dut. (...) Baina gazteak eremu informalean kokatzen dira gehienetan».

“Haurrekin” sailean % 17,65 guti dela iduri luke. Hain zuzen, inkestatu anitzek, denek egin ez baldin badute, haurrei euskara eman dietela susma dezakegu. Ehuneko hori apala da, baina euskararen familia transmisioa “familiar / etxean” sailean ere sar daiteke. Halaber, “anai-arrebekin” erabilera (% 11,76) apala da; baina anai-arrebekin euskalkiz mintzatzea ere “familiar / sortetxean” sailean sar daiteke.

“Lanean / lankideekin” sailean inkestatuen % 23,52 baditugu. Euskalkia erabilia da bereziki lankideekiko harremanetan lan-hizkuntza gisa baino gehiago. Azken erabilera hori Euskal Irratietan eta *Herria* astekarian gerta daiteke.

10. eta 11. galderen erantzunetarik ondoriozta genezake Fergusonen (1959) diglosiaren definizio klasikoa indarrean litzatekeela Ipar Euskal Herrian. Hain zuzen, euskararen bi barietate, euskara batua eta euskalkia, erabiliak dira, euskaldun batzuek bederen, eta horien arteko sailkatze funtzionala dugu. Sinplifikatzeko, “goi-barietatea” (*high variety*), batua, ekintza formaletan, literaturan, unibertsitatean, administrazioan, lanean... erabilia da eta eskolan nagusiki irakatsia. Euskalkia, “behe-barietatea” (*low variety*), familiar, inguru hurbilean, adiskideekin, alfabetatu gabeko hitzunekin erabilia da, solas informaletan. Baina euskararen kasuan, xehetasunetan sakonki sartu gabe hemen lekurik ez baita, definizio horren muga batzuk laster agertzen zaizkigu: goi-barietatea litzatekeen euskara batua euskalki ezberdinetako hitzunen arteko eguneroko ahozko hizkuntza-harremanen barietatea da eta, bestalde, hitzun batzuen ama-hizkuntza bilakatu da. Fergusonen definizioan goi-barietatearen bi ezaugarri horiek aitzinikusirik ez ziren.

3.5. 12. Zure ustez, zoin da euskara batuaren eta euskalkien geroa Iparraldean?

Hemen, bistan da, nehorik ez baitaki zuzen zer gertatuko den, helburua zen berriz ere usteak, sentimenduak biltzea, optimistenak eta pesimistenak,

euskara batuzaleenak eta euskalkizaleenak, etab. Erantzunak 3. taulan bildu ditut.

Hemen, berriz ere, sailkatze zailtasunak izan dira eta hautatu ditudan sailetan erantzunak denak sarraraztea ez da erraza izan. Adibide bat. Inkestatu batek hau idazten du: «Ez dut ikusten euskarari gerorik baturik gabe eta euskalkieri oraino gutiago». Euskara biziko baldin bada, batua azkartuko dela ulertu dut eta euskalkiak ahulduko. Baina dedukzio hori eztabaidagarria da.

- **Ez dakiena**

Hona erantzun bat: «Ez naiz batere gai erantzuteko». Beste bat: «Ez dakit, ni ez naiz azti. Pentsatzen dut halere bermatu behar dugula». Eta beste bat: «Biziki abila dakiena. Ezin da “ustea” aipatu, “esperantza” baizik. Batez ere “geroa” zer den zehazten ez delarik. 50 urteren buruan euskara bizirik izanena da oraindik, batua zein euskalkiak. Bainan 300 urteren buruan, ideiarik ez». Inkestatu hori ez dakien sailean eman dut. Eta hau ere: «Ene irudiko, euskalkiak indar handia du, eta atxikia izanena da gazteak haien herrietan gelditzen direno. Pertsonok ingurumenari eta kultura bati lotuak gara, tokitik atera ezker, beste eremuetako kulturekin funditzen joaten dela iruditzen zait. (...) hori nehork ez daki nola bilakatuko den, guhaurk ere ez baitakigu zer eragin jasoko eta sortuko dugun». Azken horrek idazten du: «Idatzizkoan, batua nagusituko dela erranen nuke. Ahozkoan, ez naiz aski aditua hipotesia sinesgarri bat emateko». Ez dakienekin sailkatu dut.

- **Geroaz erantzun zehatzik ez**

Hona orain inkestatu batzuek galderaren gaitik kanpo erantzun dutenen aipamen zenbait, kanpo ene ustez bederen. Inkestatu horrek galderari ez dio erantzuten: «Biek jakin behar due». Zuberotar batek hau idazten du: «Ene ustez euskara batua haste batean zinez lagüngarri da eüskaldün berrien. Harreman minimo bat segürtatzen dü eüskaldünen artean». Eta horrek hizkuntzaren kalitateaz idazten du: «Lehenik uste dut alimaleko galtzea izan dela euskalkietan 1910-1940 urteen artean sortu zirenen belaunalditik landa... Hortaz ohartu nintzen ene aita, ama, osaba, izebekin.... Ikusten dut

ene belaunaldikook euskara anitz pobreagoa dugula gehienetan, 1910-1940 urteetan sortutakoek sekulan egiten ez zituzten huts itsusiak eginez, gainera gorago aipatu ditudan batuarekilako nahasketa anitzekin, gure euskalkiko forma ezagutzen ez dugularik... Beraz, zinez batua beharrezkoa ikusten dut nahi badugu goi-mailako hizkuntza bat atxiki Iparralde huntan...». Beste horrek ere ez du geroaz iritzirik ematen: «Nire ustez, euskara salbatzea izan behar da gure erronka, eta ez euskalkien eta batuaren arteko borrokak edo eztabaidak. Gure hizkuntza bakarra da, forma ezberdinekin, eta gure hizkuntza izan behar da gure kezka bakarra. Euskara batua irakatsiz eta idatziz, eta euskalkiak babestuz».

- **Euskalkien ahultzea eta batuaren azkartzea**

Inkestatu batek idazten du: «Batere ez dakit, baina, itxura guzien arabera, euskalkiak ahultzen, batua azkartzen». Sail honetan sailkatu dut eta ez ez dakitenekin. Elkarrizketatu batek dio: «Galdera zaila da. Euskara batuan oraindik mesfidantza handi senditzen dut. (...) Ikastoletatik jiten direnak, halaere, beste idekitasun bat badute jende helduek ez dutena eta horrek etorkizuna erakusten dit euskara baturantz. Euskara batuaren geroa indartuko dela pentsatzen dut, baina euskara batu Iparraldeko euskalkien zipriztendua». Beste elkarrizketatu batek dio: «Frantsesaren bidetik baldin bagoaz eta euskalkiek ez dute gero handirik. Ez dute gero handirik zeren eta eskolak kaxotxan artean bere normalizazio lana egiten baldin badu untsalaz ordoki guziak eta apailatuko dira behar bezala. Ene iduriko eta Bourdieuk erraiten zuen bezala euskalkiak izanen dira des “signes distinctifs” edo talde batentzat edo idazle batentzat, zeren eta denok ikasten badugu mintzatzeko molde bertsua eskolan Iparraldean. Eta hemendik eta hogoita hamar urtetarat Hegoaldean eta Iparraldean euskara bertsua ukanen dugu». Inkestatu horrek idazten du: «Ez zait hain argi, baina, gorago idatzi dutan bezala, iduritzen zait euskalkiak ahultzen ari direla. Gisa hortan, euskara beiratzekotan, iduri luke euskara batuak duela etorkizunean gure hizkuntza zilotik ateratuko».

- **Euskalkien irautea eta batuaren azkartzea**

Posibilitate hori ere badugu. Inkestatu batek: «Ene ustez, euskalkiek irauten dute, euskaldunek irauten duteno... Eta Iparraldeko euskara batua

gero eta gehiago zabalduko...». Beste horrek hori dio: «Euskalkien geroa euskararen transmisioaren araberakoa da dudarik gabe. Eskolakoa baldin bada transmisioa batua izanen da eta standarte apal hori menturaz». Baldintzak aipatzen ditu, erabaki gabe. Halere sail honetan eman dut.

- **Biak elkarrekin biziko**

Inkestatu batek idazten du: «Biek badute geroa, euskara batua gehiago eremu formalean eta euskalkia/aldaerak (eta xuka, toka, noka ere) nagusiki informalean». Beste batek: «Elkar elikatzen dute, eta elkar elikatzen segituko dute». Soziolinguista horrek euskara biziarazteko baldintzak azpimarratzen ditu: «Eskualkiek iraunen dute, euskarak bizkor irauten badu. Erdibide bat aurkituko da euskara batu modernoa eta euskalki bakoitzaren artean, euskara batu historikoan gertatu den bezala. (...) Problema nagusia da euskararen bizitasuna. Bizkor izanen den neurrian ezberdintasunak barneratuko ditu, eta gizarte bizitzaren aldaketei egokituko zaie. Arriskua da euskara eskola hizkuntza bilaka dadin, gero militanteen hizkuntza eta azkeanean hizkuntzalarien hizkuntza, esperantoa bezala».

- **Euskalkien eta euskara batuaren ahultzea**

Beste ikusmolde bat: «Oro har, euskararen egoera kezagarria da. Bai euskara batuarena baita euskalkiena ere». Ondoko erantzun hau ere sail honetan sailkatu dut: «Ipar Euskal Herrian, oro har, euskararen egoera da zinez larria, mintzamenaren kontutik batez ere... (...) Inkesta guziek segurtatzen eta errepikatzen daukute euskaradunen kopurua emendatuz doala belaunaldi gazteetan... baina mintzamenak taigabe gibel egiten du!!! Bada hor zerbait makur dabilena... eta ez zaut iduri euskalgintzako egitura arduradunak eta are gutxiago politika kargudunak egoera horretaz horrenbestean ohartuta diren. Egoera larri horretan euskalkiek dute gehienik peko errekaratzea pairatzen. Nahiago nuke jakin Lapurdin eta Baxenabarren zenbat haur eta gaztek dakiten euren eskualdeko euskalkian edo azpieuskalkian mintzatzeko... Oso guti izanen dira... Behar bada guraso euskaldunak dituztenak eta euren familietan euskalkiaren erabilera atxiki dutenak. Züberoako euskalkiaren egoera hobea da, hemengo Ikastola eta Gaü Eskolan zuberera baita irakatsia...».

- **Euskalkien desagertzea eta euskara batuaren azkartzea**

Elkarrizketatu batek dio: «Ene ustez euskalkiak desagertuko dira pixkanaka. (...) Lehenago jendea herrian bertan bizi zen eta ez zen sobera mugitzen. Orai eta mugimendu frango bada. Jende nahasketa anitz. Kanpotar anitz ere etortzen dire. Haurrak joaiten dira ikasketen egiterat harat eta hunat. Beraz ene ustez pixkanaka galduko da, euskalkien berezitasuna galduko die pixkanaka. Aldiz euskara batua mantenduko da eta azkartuko da». Inkestatu horrek idazten du: «Euskalkiak laster desagertuko dira nik uste, jadaneko hala da parte handi batean, gaurko gazteak (nik kostaldean ikusten ditudanak partikulazki) gipuzkeraz ari dira jadaneko. “Iparraldeko batuaz” ari balira gaitz erdi. Etorkizuna batua da ez da dudarik, euskalkiak ez dira orain berreskuratuko, arras haur gutik ikasten baitu etxean, eta etxean ere, gaur egun haurrak dituzten gazteek ez baitute euskalkirik ematen (edo arras guti)».

- **Euskararen galtzea Ipar Euskal Herrian**

Elkarrizketatu horrentzat arazoa da euskararen galtzea: «Nik ez dut esperantzarik (...) Eztakit nola erran. Nik erran nezake ez dela euskara lanjerrean Hegoaldean salbatua delakotz eta nolabait Hegoaldean salbatua baita euskara salbatua da. Bainan iduritzen zaut Iparraldean ez dakit bature, ez nakike definitzen. Iduritzen zaut problema handiena dela euskararen galtzea euskara batua euskalkiak baino. Bainan, bon, dena den, euskararen barietatea aberastasun hori, hori, Hegoaldekoek hartuko dute».

- **Erantzunen bilduma**

“Euskalkien ahultzea eta batuaren azkartzea” da aurreikuspen hedatuena (% 32,35). Heren horri beste erantzunetan agertzen den “batuaren azkartzea” lotzen baldin bazaio, azkartze hori da inkestatuen gehingoak aurreikusten duen bilakaera nagusia: 34 inkestatuetarik 19k (% 55,88). Ipar Euskal Herrian euskara batuaren presentzia azkartuko da beraz, eta “biak elkarrekin biziko” direla pentsatzen dutenak emendatuz, 24 inkestatu ditugu (% 70,58). Aldiz, euskalkien geroa ilunagoa da.

3. taula. Euskara batuaren eta euskalkien geroa lekukoen ustez

	Zenbat	% (34 inkestatuetarik)
Ez dakiena	5	% 14,70
Batuaren azkartzea	3	% 8,82
Euskalkien irautea eta batuaren azkartzea	2	% 5,88
Euskalkien ahultzea eta batuaren azkartzea	11	% 32,35
Euskalkien desagertzea eta batuaren azkartzea	3	% 8,82
Euskalkien eta euskara batuaren ahultzea	4	% 11,76
Euskalkien eta batuaren desagertzea	1	% 2,95
Biak elkarrekin biziko	5	% 14,70
Geroaz erantzun zehatzik ez	5	kontuan ez hartuak
Erantzunik ez	1	kontuan ez hartua

“Biak elkarrekin biziko” direla 5ek pentsatzen dute (% 14,70). Horietarik anitzek beharrezko baldintzak azpimarratzen dituzte, egoera hori gauza dai-tekeen. Beraz, optimismo itsu bat ez da, transmisioa beharrezkoa izanen da eta bi euskara moten arteko funtzioen banaketa ere.

“Euskalkien eta batuaren desagertzea”, hots euskararen desagertuko dela, edo bederen arrisku handian dela Ipar Euskal Herrian, batek baka-riik susmatzen du (% 2,95). Aldiz, Hego Euskal Herrian euskara “salba-tua” dela dio.

3.6. 13. Zerbait gehiago errateko ba ote duzu euskara batuari eta euskalkiei buruz Ipar Euskal Herrian?

Galdera ireki horrek inkestatuari parada ematen zion erran nahi zuena emendatzeko eta anitzek baliatu dute. Zazpik ez dute deus gehitu. Hona, beraz, berrogeita hamahiru inkestatuengan aipamen hautatu batzuk, era batez artikulua honen idazlearen antologia. Iruzkirik gabekoa.

«Ene ustez gerla faltsua da. Eztabaida ideologikoa. Euskara batua, orain ulertzen dugun bezala, euskalki bat gehiago da. Batua, euskalkien gainean

dagoela sinesten baldin badugu eta euskalkiaz (ba al dago horrelakorik?) mintzo direnak gaitzestera heltzen bagara orduan galdua da euskara bera».

«Lehen aipatu dudan bezala, euskara batua eta euskalkiak ez dira elkarren kontra ezarri behar. Euskaldun gehienek bederen bi hizkuntza menperatzen dituzte, gaztelera eta frantsesa. Gisa berean, euskaraz ere, batua eta bakoitzaren euskalkia ezagutzea baitezpadakoa dela uste dut».

«Gehitu nezakeen gauza bakarra da euskalkien –eta euskalkian– ikasteak ez duela inolako eragozpenik egiten euskara batu edo estandarraren ikas-teari. Bata-bestearen osagarri direla gauza jakina da... ‘Saint-Just’ antzeko ortodoxo batzuek ez badiote honi sinesten ere... alderantzikoa erraitearekin batera!»

«Inportantea eta posible ikusten dut Iparraldeko euskararen berezitasuna atxikitzea, doi bat normalizaturik, bai idatzian, ahozkoan, literaturan. Indar hori egiten ahal genuke hemen, Hegoaldeko erranmoldeak ez sistematikoki mailegatzeko, Iparraldean badirelarik. Guri deneri izanez elgar konprenitzea zaintzea Hegoalde eta Iparraldearen artean».

«Nik erran nezake frango pollita dela euskara batua ongi mintzatua delarik. Euskal irratian badire zinez zinez ongi erabiltzen dutenak euskara batua. Eta hizkuntza pollita hizkuntza pollita da. Beina falta du euskalkien goxotasuna eta xamurtasuna eta hurbiltasuna hala hurbiltasuna. (...) Beina bestenez frango liburu onak badire euskara batuan idatziak».

«Bada batua eta batua. Badira Euskaltzaindiak finkatu arauak, hala nola aditz edo deklinabidearentzat. Horiek alfabetizatu guziek menperatu behar dituzte. Uste izan gabe, beren euskara txarra denik. Gaineratikoentzat ez dut ikusten zergatik Arberuako haurrek behar luketen erran «egingo dut» entzuten dutan bezala, eta ez «eginen dut»».

«Toka ta noka forma alokutiboak, enetako, euskalkiari lotuak direla zeren eta hola mintzo nizalarik barnekaldeko jendeekin mintzo niz. Eta berdin hemen ari den lankide batekin, eman dezagun Amikuztarra da. Aste guzietz solas egiten dugularik biek noka ari gira forma horiek erabiliz. Enetako ez da posible batuaz, ez ditut menderatzen gainera eta ez da natural batere. Eta horregatik galtzen dira, ez balin badira, ez balin bada etxekoa».

«Bietan “toka-noka” formaren erabilpena ahultzen ari da. Ni, toka ari naiz nire bi seme ttipiekin, bainan gure ikastolan salbuespenetarik bat naiz. Pena handia».

«Batzuk lotsa dira ere beren euskalkiaz (35 urteko saratar batek errana: ez zela atrebitzen haurrei *nauzki, gan, ga* etab. bezalako formak baliatzea, ez baita aski “xuxen”. Bere garaian gure aitak berak ere ongi egin nahiz gauza frango aldatu zituen bere euskalkian.) Jende anitz, bereziki 50-70 urteko belaunaldikoak, beldur dira euskara ez aski onaren ematea izigarri aberatsa eta ederra dutelarik».

«Pozten naiz, ikusiz, azken urteetan, Euskaltzaindiaren hiztegian “Iparraldeko” hitz anitz sartu dela. Lan bat egin behar da, jendea horretaz ohar dadin. Adibidez, Iparraldeko jende anitzek “tailer” hitza erabiliko du, ez baitaki “atelier” hitza ere (*sic*) onartua dela. Hots, lan bat egin behar da, batuak gal dezan jende anitzen gogoan duen “Hegoaldeko” kutsu hori».

«Pertsonalki egunero dudak baditut, bereziki lanean itzulpen eta azpiti-tuluak egiteko momentuan... Ardura hiztegiak begiratzan ditut; aldiz gutitan joaiten naiz Euskaltzaindiaren arauen begiratzera. Ongi izanen da web-gune “ahinago” bat baldin bada Ipar Euskal Herriari dedikatu gomendio batzuekin... Beti presaka ibili behar delarik, uste dut baliagarri izanen dela».

«Ez duzue pentsatu egitea neurketa kantitatiboa ikusteko zenbatetaraino sartua den euskara batua? Ikastolek eta eskola publikoek zer erabilpen egiten duten batuaz eta euskalkiaz? Hartzen dituzu egiten diren kabalkadak, toberak, hartzen dituzu ekoizpen guziak, antzerkiak, libertimenduak. Batua-
ren erabilpena zero. Batua egoiten da konfinatua idatziaren esfera hortan... eta gero euskaldun berrien hizkera da ere».

«Euskara batua beharrik izan da, nihaur horrekin alfabetatü niz eta plazer izan düt, ene garaian ez beitzen hainbeste dokümentü».

«Eginahal guztia egin behar dugu denok, Iparraldean (eta Hegoaldean ere) euskaraz mintzatzeko. Behar-beharrezkoa da herrian euskaraz mintzatzea, euskara batua ikastea euskalerrri osokoekin mintzatzeko. Eta noski, beharrezko da ere ahalik eta gehienok euskara lantzea, irratia entzutea,

telebista ikustea, irakurtzea, idaztea, euskaraz mintzatzea ahal den guztian, haurrak ikastolara eramatea..».

«Bukatzeke, hauxe amesten dut... "I have a dream!": euskaldun guztiok, euskal herritar guztiok, noizbait euskalki guztiak ulertuko ditugula, bakoitza berean mintzatuz lotsarik gabe. Eta eremu publikoan aldiz, Urdiñarbetik Sopelara eta Urruñatik Tuterara, euskara batu bakararra, Euskal Herri batuaren batua izanen dugula amesten dut». Hau da izanen azken aipamena.

4. Azken hitza

Bi artikulutan azaldu dudan ibilbide luzea bukatu da. Aztertu nahi genuen hizkuntza-egoera hori ez zen orain arte hurbiletik ikertua, Ipar Euskal Herrian euskara batuak, tokiko euskal hizkerek eta frantsesak osatzen duten sistema. Ipar Euskal Herriko hizkuntza-ekosistema aipatu baldin bada prentsan edo era orokorrean komunikabideetan, era batez Eusko Jaurlaritzak eramaten dituen inkesta soziolinguistikoetarik kanpo, zientifikoki ikertua guti izan da. Hemen proposatu den ikerketa, bide horretan urrats bat da.

Inkestaren hamahiru galderei berrogei lekukoen erantzunak bilduz, teorikoki bostehun eta hogeitazun eskura genitzakeen. Hona emaitza nagusi batzuk: lekukoen % 95ek inguru Ipar Euskal Herrian euskara batua beharrezkoa dela pentsatzen dute, % 90ek baino gehiagok lurralde horretako hizkeren berezitasunak zaindu behar direla, % 80k baino gehiagok euskara batuak euskalkiei kalterik ekartzen ez diela eta erdiak baino gehiagok euskara batu berezi bat badela orain lurraldean. Inkestatuen arabera, Ipar Euskal Herrian euskara batua ez da ongi ezagutua, euskalkiekin nahasten da eta euskaraz eskolatuak ez diren euskaldunentzat zalantzakoa da. Baina lehen arazoa lurralde horretan osoki nagusitzen den frantsesa da. Euskararen berean ere eragina du. Geroan, familian eta eskolan guti transmitituak baitira, euskalkiak ahulduko direla eta euskara batua indartuko dela da inkestatuengan aurreikuspen hedatuena.

Lekukoei esker euskara batuaren eta euskalkien arteko harremanak Ipar Euskal Herrian hobeki ulertzen ditugu, hizkuntza-egoera hori konplexua

eta aldakorra dela berriz azpimarratuz. Nahiz beren hizkuntza-sinesmen, sentimendu eta usteetan oinarriturik, berrogei lekuko horiek bizi publikoan euskararen preskribatzaileak izanez, lanean aritzeko egin behar dituzten hizkuntza-hautuak gogoetatzen dituzte. Horrengatik ikerketa honendako lehen hautuzko lekukoak ziren. Milesker berriz haiei.

Bibliografia

Coyos, Jean-Baptiste, 2018, «Euskara batua eta euskalkiak Ipar Euskal Herrian: inkesta pertzepziozko dialektologian oinarritua», *Euskera*, 63, 2-1, 185-208.

———, 2019, «The Dynamics between Unified Basque & Dialects in the Northern Basque Country: A Survey Based on Perceptual Dialectology», *International Journal of Language and Linguistics*, 6-1, 115-125.

Cramer, Jennifer, 2016, *Perceptual Dialectology*, www.oxfordhandbooks.com/view/10.1093/oxfordhb/9780199935345.001.0001/oxfordhb-9780199935345-e-60 (2018ko martxoan kontsultatua).

Ferguson, Charles A., 1959, «Diglossia», *Word*, 15, New York: 325-340.

Frei, Henri, 1929 [1993], *La grammaire des fautes*, Slatkine Reprints, Paris-Genève.

Paveau, Marie-Anne, 2008, «Les non-linguistes font-ils de la linguistique ? Une approche anti-éliminativiste des théories folk», *Pratiques - Linguistique, littérature, didactique*, 139-140, <https://journals.openedition.org/pratiques/1200> (2018ko martxoan kontsultatua).